

**“Fundamentuzko probarik barik salatutako 10 emakumeren atxiloketa izan zen Mañarikoa”**

**Julen Orbegozo**

Dokumentalaren zuzendaria • 8



**Urte osoko lanaren ondoren, Elorriko Txintxirri ikastolak agur esan dio Ibilaldia 2020ri**

**Elorrio I** Joan zen domekan Ibilaldiaren agur ekitaldia egin zuten Elorrión. • 10



# Durango, emaitzen zain

Osakidetza eta Osasun Saila PCR probak egiten dabilta 13tik 40 urtera bitarteko durangarren artean. Baheketa selektiboa da eta agintariek eta Osasun Sailak bertan parte hartzera deitu dute, egoeraren ahalik eta argazkirik fidagarriena lortzeko • 2-5



**Momoitioko San Juan ermitaren inguruak hankaz gora agertu dira**

**Garai I** Ermita inguruak hondakinez beteta agertu dira. Gauzez, inguruok jaia egiteko gune izaten direla salatu du Erramun Osa alkateak. "Eskatzen dugun bakarra da inguru zainzea, auzotarrak ez molestatzea", esan du. 6

**VITALDENT**

DURANGO

Landako Etorbidea, 5

946 21 76 84

Kontsultatu baldintzak vitaldent.com-en. RPS 255/19. Osasun-erregistroa: 48C2616611

**20%**  
KO

**DESKONTUA<sup>(1)</sup>  
INPLANTOLOGIAN**





## Euren borondatez erantzun dute



Bizkaietan, Durango da 10.000 biztanletik gorako lehenengo udalerrria baheketa selektibo bat egiten. Abadiño eta Elorrio ere, Durangoren moduan, pandemiaren 'eremu gorria' deiturikoan daude. Baina oraingoz ez da halakorik egitea aurreikusten herri bi horietan. Osasun Sailak eta Osakidetza Landako Erakustazokan ipini dute baheketa selektiboa. Borondatezko proba da eta durangarrek galbahea hasi eta berehala ekin diote hitzordua eskatzeari.



# Termometroak gora egin du

Zenbakiak

Astea hasi denetik, Durango, Abadiño eta Elorrio pandemiaren eremu gorrian daude. Jaurlaritzak neurriak zorrotz ditu osasun egoerari tamaina hartzeko. Durangon baheketa egiten dabilta



Landako Erakustazokako baheketa etengabeko joan-etorria dago.

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Osasun mekanismo guztiak lanean dabilta martxoko eszenatokia saihesteko. Ez dute osasun sistema kolapsatu gura. Eta ez dute beste itxialdi baterako biderik zabaldu gura. Izan ere, tenperaturak lez, halantxik egin du gora koronabirusaren termometroak. Nahikotxo, gainera. Testuinguruari erreparatzea nahikoa da horretaz jabetzeko: Nafarroako Gobernuak itxialdi perimetrala ezarri du. Gipuzkoan goraka doaz kasuak. Martxoan herrialde hori zen lasaien zegoena, baina joera hori irauli egin da han koronabirusaren bigarren olatuan. Bizkaian gauzak okertu egin dira azken asteotan, eta Durangaldeak erakutsi du egoera horren argazkirik larriena. Durango, Abadiño eta Elorrio pandemiaren eremu gorrian daude astea hasi denetik. Hau da, 5.000 biztanletik gorako herrietan, azken 14 egunetako intzidentziak kontuan hartuta, 100.000 biztanleko 499 kutsatu baino gehiagoko tasan kokatu dira hiru udalerrriak.

Argazki horretatik ondorioak eratorri dira. Osakidetza eta Osasun Sailak baheketa

selektibo bat egiteko dispositiboa ipini dute Durangoko Landako Erakustazokan. Martitzen arratsaldean ekin zioten galbahetzea egiteari. Honakoa azaldu zuen Iñaki Agirrebeitiak, Durangoko Lehen Mailako osasun arretako buruak: "Pandemiaren azken asteotako bilakaera ikusita, Osakidetza eta Osasun Sailak Durangon baheketa berezi bat egitea erabaki dute. 13 urtetik 40 urtera bitarteko biztanleen tarteaz aztertuko da. Baheketa beste zazpi egun iraungo du". 13tik 40 urtera bitarteko pertsonengan detektatu dira positiborik gehienak, eta, horregaitik, adin tarte horri egingo dizkiete PCR probak.

### Baheketa gehiago EAEn

Egoera etenik barik dabil aldatzen, eta edizio hau ixteko unean Osasun Sailak jakinarazi barik zituen Durangoko baheketa datuak. Eta beste hainbat datu, oster, airean zeuden. Tartean, kalean bolo-bolo dabilen galdera: zer gertatuko ote zen Elorriogaz eta Abadiñogaz? Egingo da baheketa herri bi horietan Durangon egin den moduan? Galdera hori ez da ausazkoa, hori pentsatzeko zantzuak topatu litezkeelako inguruan. Ermuan, adibidez. Osasun Sailak egiten goizean

iragarri zuenez, baheketa egingo dute Ermuan. Baita Gipuzkoako Urnieta herrian ere. Testatze horiek alde aurretik Ordizian eta Azpeitian egindakoei batuko zaizkie.

### Ekitaldi kulturalak, etenda

Eskualdeko elkarteek hainbat kultur ekitaldi etetea erabaki dute. Durango 1936 elkarteak *Agurrik gabeak* ekitaldia egitea zuen aurreikusita, baina planak bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Plateruenan Jon Gurrutxagaren kontzertua zegoen iragarrita, eta hori ere bertan behera geratu da. Abadiñon, organo kontzertu bat ezeztatu behar izan dute. Durangaldeko beste hainbat elkarte ere erabaki hori bera aplikatu dute. Bien bitartean, Durangoko eta Elorrioko udalek batzorde bereziak deitu dute egoera aztertzeko.

### Egoeraren azken datuak

Edizioa ixterako, honako argazkia zuen Durangaldeak. Eguaztenean 63 PCR positibo detektatu zituzten. Horietatik 30 Durangon, 10 Abadiñon, 8 Berrizen, 7 Zornotzan, 4 Iurretan, 3 Elorrioren eta 1 Otxandion. 5.000 biztanletik gorako herrietan, Abadiñok zuen Bizkaiko gaitoxe tasarik handiena.

1 **11.000**

**PCR probak egitera deituta dagoen durangar kopurua, gutxi gorabehera.**

Baheketa parte hartzea borondatezkoa da eta Osasun Sailak eta agintariek galbahetzean parte hartzeko deia egin dute, modu horretan errealtatearen argazkirik ahalik eta fidagarriena lortzeko.

2 **30**

**Baheketa lanean dabilzan osasun langileak.**

Txanda bitan lan egiten dute. 15 behargin daude goizez eta beste 15 arratsaldez.

3 **1.800**

**Baheketa dispositiboak egun bakarrean gehienez egin dezakeen PCR proba kopurua.**

Hitzorduen %100 beteko balira, dispositiboak 1.800 proba egiteko gaitasuna luke.

4 **9:00-21:00**

**Baheketa ordutegia.**

Etenik barik dabilta probak egiten. 9:00etan hasita, Landako Erakustazokako ateak ez dira ixten 21:00ak ailegatu arte.

5 **946032880**


**Hitzordua eskatzeko telefono zenbakia.**

PCR proba egin ahal izateko, hitzordua eskatu behar da aurretiaz. Telefono horretara deituta esleitzen dituzte hitzordua; ahal dela, bakoitzaren ordutegira moldatuta.



# “Datuak izan arte, udalak aktibitate guztiak bertan behera utzi ditu eta elkarteei ere berdin jokatzeko eskatu diegu”

Duragoko Udalak neurriak hartu ditu koronabirusaren hedapenaren aurrean; Urgentziako Bozeramaile Batzordera ere deitu du asteen



• JONE GUENETXEA

**Duragoko Udalak Urgentziako Bozeramaileen Batzordea egin zuen eguaztenean, koronabirusari aurre egiteko neurri berriak hartzeko. Bere zerbitzuei eutsi dien arren, udalak bertan behera utzi ditu antolatzen dituen aktibitateak, datuak izan bitartean. Bere eskumen barruan, neurri gehiago hartzea aztertzen dabilta.**

**Durango zein interpretazio egiten duzue egunotako egoeraren inguruan?**

Durango eremu gorrian sartu zen joan zen asteen, eta aste honetan Durangaldeko beste herri batzuk ere sartu dira. Horren aurrean, baheketa masiboa egitea oso positiboa da eskualdeko datuak kontuan hartuta. Asintomatikoak eta kutsatuta egon daitezkeen pertsonak detektatzea oso garrantzitsua da.

**PCRa egitea boluntarioa da. Herriarrak Landako Gunera joatera animatzen dituzu? Durangarren parte-hartzea garrantzitsua da?**

Martitzen goizean, Osakidetza Durangaldeko arduradunekin egon ginen instalazioak ikusten, arratsaldean probei

**“Egoeraren aurrean, baheketa masiboa egitea oso positiboa da eskualdeko datuak kontuan hartuta”**

ekiteko. Kolaborazio guztia eskaini diegu. Udaletik bando bat atera dugu jendea parte hartzera animatzeko. Eskura ditugun tresna komunikatibo guztiak erabiliko ditugu 13tik 40 urtera

**“Ditugun tresna komunikatibo guztiak erabiliko ditugu adin horretako durangar guztiak proba egiteko”**

arteko durangar guztiak proba egiteko. 11.000 pertsona inguru dira PCRa egin dezaketenak. Udalaren aldetik, galbahetzeaz gainera, hartu duzue beste neurriak?

Gure zerbitzuei eutsiko diegu, baina datu guztiak esku artean izan arte aktibitate guztiak bertan behera utziko ditugu. Kultur arloko ekintzak, ikastaroak... Atzeratu egingo ditugu. Elkarteei ere eskatuko diegu aurreikusita zituzten ekintza guztiak atzeratzea.

## Probak egin dizkiete Durangaldeko nagusien egoitzetako langile eta bisitariei

**DURANGALDEA • J.D.**

Bizkaiko Foru Aldundiak PCR proba prebentiboak areagotu ditu Durangaldeko nagusien egoitzetan. Horrela, martitzenean egun osoan zehar eta eguazten arratsaldean, PCR probak egin zizkieten eskualdeko egoitzetako langileei eta egoitzak bisitatu zituzten senideei. Duragoko Landako Elkartegia erabili zuten probak egiteko.

Martitzenean, 511 behargini egin zizkieten PCR testak. Eguaztenean, ostera, 311 bisitariren txanda izan zen. Azken multzo honetan, Durangaldeko egoitzaren bat bisitatu duten senideak eta eskualdetik kanpoko egoitza-

ren bat bisitatu baina eskualdean bizi diren senideak sartu ziren, Aldundiak ohar batean informatu zuenez.

Aldundiak azaldu duenez, proba prebentiboak izan ziren. Baina aurreratu zuen bisitak bertan behera utziko lituzkeela, baldin eta bisitarien PCR probetan transmisio komunitarioren bat egon dela egiaztatuko balitz.

Egin zitezkeen proben artean PCR bidezkoak lehenetsi zituzten. "Gaur egun, PCRak ematen ditu emaitzarik fidagarrienak", azaldu zuen Sergio Murillo Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte ekintza saileko diputatuak.



Martitzenean eta eguaztenean, Landako elkartegian egin zituzten PCR probak.

**anboto** ▶

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2020ko urriaren 23a  
18. urtea - 825. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



## Zer diote PCR proba egin dutenek?



IMANOL  
AZURMENDI

Durango

### Arduraz bizi izan dituzu azkeneko asteak?

Bai, kezka apur batez. Azkenaldian, orokorrean, apur bat erlaxatuta egon gara lagun artean edo terrazetan, mahai bi batuz jende gehiago elkartzeko eta antzerako tranpatxoak eginda. Egoerak txarrera egin duela konturatzen joan garen neurrian, horrelako jokabideak murrizten joan gara. **Galbahetze selektiboak aproposak iruditzen zaizkizu?**

Bai, beharrezkoak dira ikuspuntu zehatzago bat izateko. Proba laburrak dira, ez dute askorik irauten. **Proba laburra da, baina desatsegina ere bai?**

Tira, apur bat bai, baina minutu bitan eginda dago. **Zure inguruan COVID-19 kasurik egokitu zaizu?**

Ez. Martxoan 20 egunean konfinatuta egon nintzen, baina neurri prebentiboa izan zen. Senitartekoren bat ere isolatuta egon da, baina beste batzuk emandako positibo ondoz.



ZIORTZA  
ETA IRATXE ARROJO

Durango

### Lehenengoz egin duzue PCR proba?

Ziortza Arrojo: Niri oso desatsegina egin zait. Iratxe Arrojo: Niri ere bai, baina, tira, eginda dago. **Desatsegina izan zitekeela sumatuta ere proba egitea erabaki duzue. Zergaitik?** Z.A.: Garrantzitsua irudi-

tzen zitzaigun jakitea birusa badugun ala ez. Asintomatikoak izan gaitzke. **Egoeraren aurrean, hartu duzue neurririk?** Z.A.: Kalera irten dugunetan, Durangotik kanpora irteten ahalegindu gara, maskarak ipinita eta distantziak mantenduta.



ANDONI  
AZPITARTE

Durango

### Itxaroten zenuen Durangon gertatu dena?

Egunetik egunera positibo kasuak igotzen joan dira eta ardura apur batez bizi izan dut. Ez nuen uste gauden egoerara helduko ginenik, baina heldu gara. Orain, ingurukoengaitik erantzukizunez jokatzeko egokitzen zaigu. Zer egin, zer ez egin... Herrian positibo kasuak gora egin ez dezaten, gehienbat. **Zergaitik erabaki duzue proba egitea?**

Inguruan dudan jendeagaz trankil egon naitekeen jakiteko eta ni neu lasaiago egoteko ere bai. Informazio hori izatea baliagarria da.

### Proba egin aurretik harriatu zaitugu. Testak berak arduratzen zaitu?

Beste bat ere egindakoa naiz lanean. Beraz, badaikit zelakoa den. Apur bat desatsegina izan daiteke, baina egin beharra dago eta lasai nago, ez nau arduratzen.



MIREIA  
LOPEZ ETA MARIA RUIZ

Durango

### Zergaitik erabaki duzue borondatezko proba hau egitea?

Mireia Lopez: Nire kasuan, lehenengoz egin dut. Azken egun hauetan sintoma batzuk izan ditut eta proba egitea erabaki dut. Lasaitasunagaitik eta inguruko segurtasunagaitik egin dut. Asintomatikoa izan naiteke, adibidez. Proba eginda, seguru egongo naiz. **Ezjakintasunaren aurrean, hartu duzue neurririk?**

M.L.: Bai. Durangoko ezjaietan ez irteten ahalegindu naiz, eta tabernetan denbora osoan maskara ipinita izaten.

### Zure kasuan, Maria, lehenengoz egin duzue proba?

Maria Ruiz: Ez, lehenago ere egin dut. Asintomatikoa naizen ala ez jakiteko eta etxeok babesteko etorri naiz.

### Zuen lagunak etorriko dira?

M.R.: Bai. Goizean whatsapppe komentatzen ibili dira eta denak etorriko



ASIER  
BAÑOS

Durango

### Zelan bizi izan dituzu azken egunak?

Taberna batean lan egiten dut eta beti ahalegintzen naiz neurriak errespetatzen eta arduraz jokatzeko. **Borondatezko proba egitea erabaki duzue. Zergaitik?** Kasu asko egon dira azkenaldian eta proba denok egiten badugu hau guztia geratzea errazagoa izango dela uste dut.

### Inguruan izan duzue koronabirus kasurik?

Lagun baten gurasoek positibo eman dute eta beste lagun bat proba baten emaitzak jakiteko zain

dago. Horregaitik, kuadrillakoak garenok pentsatu dugu ona izango zela aurrea hartu eta probak egitea, badaezpada.

### Hitzordua hartu beharra dago proba egiteko. Erraz hartu zenuen?

Ba, egia esanda, kostatu zitzaidan. Askotan deitu behar izan nuen. Baina zorte txarra izan zela uste dut, ze nire kuadrillakoek laster hartu zuten ordua.

### Zure ingurukoak animatuko dituzu proba egitera?

Bai, egoera geratzeko PCR probak egitea garrantzitsua dela uste dut.



MIKEL  
LOPEZ

Durango

### Galbahetze selektiboak egitea neurri ona iruditzen zaizu?

Bai. Denok ipini behar dugu geure alea egoera honi aurre egiteko. Hona etorri, proba egin eta borondatea erakustea garrantzitsua da. **Sarritan gazteak seinaltzen dira egoeraren errudun. Zer deritzozu?**

Nire ustez, adin tarte guztietan dago arazoa. Beharbada jende gazteak

denbora gehiago emango du kalean, eta horregaitik izan daiteke, baina denon arazoa da eta denok egin behar diogu aurre.

### Zure inguruko jendea proba egitera animatuko duzue?

Bai, proba denok egin behar genukeela esango nuke. Beraz, denak animatzen ditut horretara. Zenbat eta jende gehiago etorri, orduan eta errazagoa izango da egoera kontrolatzea.

 **Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN


 **Smurfit Kappa**  
Nervión





# “Industria farmazeutikoak uste du belarren jakintza osoa berea dela, baina hori ez da horrela”

Mentxu Amunategi sendabelarretan aditua da. Egunotan Garain dabil, ikastaroak ematen



**Mentxu Amunategi Barandika**  
Sendabelarretan aditua  
Bermeo | 1970

**GARAI** • EKAITZ HERRERA

**25 bat urte daramatza sendabelarrei eta baratzeke lanei lotuta, eta egunotan bere ezagutza partekatzen dabil Garain. Joan den domekan, sendabelarrak ezagutzeko ibilbidea gidatu zuen. Domeka honetan ukenduak egiteko tailerra eskainiko du Garaiko kultur etxean.**

**Ikastaroan kontu batek atentzia eman digu: sendabelarrak topatzeko ez gara Garaiko plazatik asko urrundu. Botikak etxe ondo-ondoan topatu ditugu.**

Botikak beti izan behar ditugu es-

kura. Euskal Herria oso aberatsa da belarretan. Suposatzen da herrialde bakoitzean herrialde horretako beharizanen arabera belarrek irteten dutela. Euskal Herrian, azido urikoa lantzeko, nerbioak lasaitzeko eta defentsak indartzeko landareak ditugu. Bestalde, belarretako batzuek botika lez funtzionatzen dute. Beste batzuek arkakusoei aurre egiteko zein ilera-ko tinteak egiteko balio dute.

**Araututako osasun sistemak eta belarren propietate sendagarriek badute aukerarik elkar elikatzeke?**

Gaur egungo munduak hortik joan

behar duela esango nuke. Inork ez du arrazoi guztia. Beraz, jakituria guztiak batu beharko genituzke. Belarrek lan egiteko prest dagoen mediku asko dago. Baina mediku batzuk izateagaz ez da nahikoa. Medikuen elkargo osoak egin beharko luke bat. Gertatzen dena da industria farmazeutikoa oso ezkor dagoela gaur egun. Uste du jakinduria guztia berea dela; baina hori ez da horrela. Gure jakituria humanitate osoarena da. Kontuan hartu behar da industria farmazeutikoaren ezagutzak gure jakintzetan oinarritzen direla.

**AEBetako mugimendu feministak 1970eko argitalpen batean salatu zuenez, sendabideen jakintza emakumeen gain egon da beti, harik eta osasun sistema maskulinizatu zen arte. Eskema hori indarrean dago?**

Gu tribuetatik gatoz. Eta tribuko kide guztiak erabiltzen zituzten belarrak, berdin-berdin. Egungo emakumeok lotura gehiago dugula sendabelarrekin? Bai, zainketari lotuta gaudelako. Feminista lez, esango nuke jakinduria guztia ezin dugula emakumeon gainean ipini. Denon gainean ipini behar dugu.

**Koronabirusaren aroan gaude. Bala dago horri aurre egiten dion belarrik?**

Honetaz ez dakigu askorik. Garain egindako ibilbidean, hain urrutira joan barik, landare antibiriko bat

“**Zaingorria belar antibiriko da eta koronabirusari aurre egiteko langungarria izan daiteke**

ezagutu dugu: zaingorria edo San Robertoren geranioa. Antibiriko denez, birusari aurre egiteko langungarria izan daiteke. Dena dela, interesgarria da defentsak handitzea. Badira immunitate-sistema indartzeko belarrak; ezkaia, adibidez. Osasuntsu jatea ere garrantzitsua da.

**Zer esango zenioke sendabelarren gaian eta erabileran sakondu gura duenari?**

Lehenengo, landareak ezagutu behar dira. Zein sasoiatan hartu behar diren, landarearen zein zati erabili behar den eta abar. Kontuan hartu beharreko beste gauza bat da landareak toki garbietatik hartu behar direla. Infusio, olio edo ukenduren bat zelan egiten den ikasi. Eta ziurtasunez jarduteko, ikastaroetara jo.

## Sendabelarrak



**Asuna**

Odola garbitzen duen belarrik bakarrenetarikoa. Kolesterola, diabetesa eta azido urikoa hobetzen ditu. Orriak espinaken moduan kozinatuta jan ditzakegu.



**Zain belarra**

Bere orriek zaurietako odol-jarioa eteten dute. Flemak kentzeko, egin infusioa. Horretarako, orriak bost minutuan egosi.



**Horma-belarra**

Hainbat dago. Borobil formakoa zauriak edo zalda-rrak sendatzeko erabiltzen da. Orriak epeldu eta azalean ipini.



**Zaingorria edo San Robertoren geranioa**

Landare antibiriko. Infusioa eginda, eraginkorra da birusei aurre egiteko. Infusioari ezkaia gehitu dakioke, gorputzeko defentsak igotzeko.

## Momoitioko San Juan ermitaren inguruak hankaz gora agertu direla salatu du Garaiko alkateak

Inguruok, gaez, jaia egiteko bilgune izaten direla salatu du Erramun Osak. Inguruak zaintzera eta auzotarrak errespetatzera deitu du. Ez da halakorik gertatzen den lehenengo aldia

**GARAI** • EKAITZ HERRERA

Erramun Osa alkateak salatu duenez, Momoitioko San Juan ermitaren inguruak hainbat asteburutan agertu dira hondakinez beteta. Joan den asteburuan ere irudi hori bera errepikatu zen. Edukiontzia bat iraulita agertu zen, eta askaldegiatako bazterrak hondakinez beteta. "Asteburuetan, familia giroan etortzen dira bisitaririk gehienak. Zaborra dagokion tokira eramaten dute

eta inguruak zaintzen dute. Baina gaez, jaia egitera etortzen dira beste hainbat. Badirudi jende batek uste duela inguruak nahieran erabili dezakeela eta herritarrek goizeko ordu txikietan molestatu ditza-keela. Jaia egitera landa eremura dagoz; zabortege batean daudela uste dutela dirudi", kritikatu du Osak. Alkateak inguruak zaintzeko eta auzotarrak errespetatzeko deia egin du.

**Begiratokian ere bai**

Momoitiokoa ez da anabaz betetzen den leku bakarra. Udal plazaren ondoko begiratokian antzeko egoerak gertatu izan dira. "Oilas-koak edo hanburesak hartuta etorri da hainbat, eta zaborra bertan uzten dute gero", salatu du alkateak. "Gero udal langileek garbitu behar izaten dute dena. Udaltzaingorik ez dagoenez, ematen du edozer egin daitekeela", esan du.




Edukiontzia bat iraulita agertu zen joan den asteburuan.



# merkataritza gida sarean

[anboto.org/gida](http://anboto.org/gida)



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko  
merkataritza gida euskaraz eta sarean!***

**Merkatari gida parte hartzeko deitu: 946 217 902**

**Argazkiak - Datuak - Kokapena**

(urtean 50€)



# “Atxiloketekin mezu bat bidaltzen zuten, agintean nor zegoen gogoratzen zuten”

Datuetan arakatuta eta herritarren testingantzak jasota, frankismoan atxilotutako 13 emakumeren istorioa kontatzen du 'Atearen ostean, Mañariko 13 alabak' dokumentalak



**Julen Orbegozo Terradillos**  
Dokumentaleko zuzendarietarikoa bat  
Durango | 1982

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**  
1937an, gerra zibila amaitu eta egun gutxi geroago, militar frankistek Mañariko hamahiru emakume atxilotu zituzten. Haien istorioa ezezaguna izan da gehienentzat gaur arte. Oroimena eta errekonozimendua oinarri dituen proiektu batean, Mañariko Udalak eta Gerediaga Elkarteak ikerketa bat egin dute orduan gertatu zena azaleratzeko. Ondoren, Bideografikoko ikertzaileek emakume haien senitartekoen eta ondorengoen testigantzak jaso eta 'Atearen ostean, Mañariko 13 alabak' dokumentalean jaso ditu. Julen Orbegozo dokumentaleko zuzendarietarikoa bat da.

**Emakumerik gehienak, hamar, egun berean atxilotu zituzten, uztailaren 27an. Zer gertatu zen?**

Bizkaian boterea irabazi zuenean, frankismoak errepresio orokor bat hasi zuen; eta estrategia horren barruan, baita emakumeen kontrako errepresio propio bat ere. Emakume batzuek profil publikoa zuten, sindikalistak zirelako edo kargu politikoren bat zutelako, baina beste asko ez ziren profil horretakoak eta horixe da Mañarian atxilotu zituzten hamar emakumeen kasua. Guk egindako elkarrizketetan kontatzen dutenez, kamioneta bat etorri zen herrira, militar frankistekin. Antza, mahai

bat ipini zuten plazan, eta zerrenda bateko emakumeak atxilotzen hasi ziren. Denak ez zeuden herrigunean. Esaterako, Salome Arteaga ortuan zegoen eta plazan egondako senitarteko batek esan zion hara jaisteko. Jantzi, alaba hartu eta plazara bajatu zen. Zerrendan zegoela konfirmatu eta militarrek atxilotu egin zuten. Batzuk euren seme-alabekin atxilotu zituzten eta baten bat haurdun zegoen.

**Nora eraman zituzten?**

Bilboko Larrinagako kartzelara. Jendea haserre zegoen herrian atxiloketengaitik eta, antza, baten bat Durangora joan zen hango kargudun frankistekin berba egitera eta beste inor atxilotu ez zezaten eskatzera. Bategaitik edo besteagaitik, ez zen kamionetarik bueltatu. Hamar emakumeek hile batzuk eman zituzten kartzelan, eta txanda bitan askatu zituzten.

## Dokumentala, erakusketa eta dantza saioa, biharko ekitaldiko osagaiak

Erakusketa omendutako emakumeen gaineko biografiekin osatuko dute

Mañariko Udalak antolatuta, memoria, erreparazioa eta errekonozimendua uztartuko dituen ekitaldia egingo dute bihar, 18:30ean, pilotalekuan. Ekitaldia Xabier Madariaga kazetariak aurkeztu eta Elorrioko Antton musikariak girotuko du.

'Atearen ostean, Mañariko 13 alabak' izeneko dokumentalaren estreinaldia ez da ekitaldiko osagai bakarra izango. Esaterako, emakumeen biografiekin eta

artxiobotako dokumentu argitaratubakoekin egindako panelez osatutako erakusketa bat ere egongo da ikusgai.

Sinbolismoz betetako beste ekimen batean, hamahiru emakume dantzarik saioa eskainiko diete omentzen diren horien senitartekoei, eta ondoren lore eskaintza bat egingo zaie. Gero, Garazi Sarrionandia mañariarrak egindako koplak abestuko dituzte, hamahiru emakumei

**Zergaitik atxilotu zituzten?**

Atxiloketekin mezu bat bidaltzen zuten, agintean nor zegoen gogoratzen zuten. Bestalde, orduan emakumeak ziren familiaren eta baserriko kudeaketaren benetako pisua zeramatenak. Gobernantza mota horren zutarriak ziren. Euretariako hainbat atxilotzea kolpe gogorra zen Mañaria moduko herri txiki batentzat eta horregaitik atxilotu zituzten. Azkenean, fundamentuzko probarik barik salatutako hamar emakumeren atxiloketa izan zen.

**Hiru emakume beste egun batzuetan atxilotu zituzten.**

Mañariarrak ziren, baina urte haietan herritik kanpora bizi ziren. Profil politikoagoa ere bazuten. Esaterako, euretariako batek, Miren Edurne Bustintzak, sendo deklaratu zuen abertzalea zela eta propaganda lanak egin zituela. Berari ezarri zioten zigorrak handiena, urte batzuetakoa, baina gaixorik zegoenez, zigor osoa bete aurretik askatu zuten. Gerora, bizi luzea izan zuen.

**Zelan joan dira emakume horien ondorengoei egindako elkarrizketak? Gogoz hartu dute proiektua?**

Elkarrizketak egitera joan gairenean, esku zabalik hartu gaituzte. Batzuek ondo antolatuta zeukaten zekiten dena, eta gogotsu egon dira kontatzeko. Beste batzuek, ostera, ez zekiten ezer, ezta kartzelan egon zirenik ere. Hau da, emakume atxilotu batzuek ez zieten ondorengoei euren istorioa kontatu. Kasu batzuetan, emakume atxilotuen bitartez barik, euren senitartekoei ondorengoei kontatu dietelako izan da transmisioa.

**Mañarian egindako lana beste herri batzuetan ere egingo balitz...**

Badakigu herri batzuetan kartzelan egondako emakumeen erroldak badaudena, baina ez dute horren osteko prozesurik martxan ipini, Mañarian moduan. Eredu esportagarria dela uste dut.

## Mozorro tailerra eta beldurrezko ibilbidea dira ekimenetarikoa bi Mallabiko Gau Beltzean

**MALLABIA • J.D.**

Urriaren 31n Gau beltza egingo dute Mallabian, herritarrek eta Satxibu aisialdi taldeak antolatuta. Askotariko ekintzak prestatu dituzte, baina aurretik izena eman beharra dago eurretan parte hartzeko. Urriaren 27ra arte dago horretarako epea, Mallabiko liburutegian.

Kalabazak Gau Beltzeko osagai bereizgarriak dira eta euren inguruan antolatu dute lehenengo ekimena, 11:00etan. Kalabazak barrutik husteko tailerra eskainiko dute. 12 urtera artekoentzat da ekimena. Ostean, mozorroak egiten erakutsiko dute, beste tailer batean. Azkenik, ausartenentzat, beldurrezko ibilbide bat ere prestatu dute, parke inguruan.

## Alex Txikonen ikus-entzunezko bi ikusgai Izurtzan, azaroaren 7an

**IZURTZA • J.D.**

Ikus-entzunezkoak Alex Txikonen mendigoizaleak Nanga Parbat-era (Himalaia) egindako igoera erakutsiko du azaroaren 7an, erabilera anitzeko eraikinean. Ondoren zineforuma egingo dute Txikonekin. Saio bi dauzke, 17:00etan eta 19:00etan. Izena aurretik eman behar da eta gaur da horretarako azken eguna, [liburutegia.izurtza@bizkaia.org](mailto:liburutegia.izurtza@bizkaia.org) helbidean. Mezuan izen-abizenak, herria, telefonoa eta posta elektronikoa zehaztu behar dira.

## San Bernabe inguruko kobazuloak ezagutzeko irteera bihar, Otxandion

**OTXANDIO • J.D.**

Otxandioko Gazte Asanbladak irteera bat antolatu du biharko, San Bernabe inguruan dauden kobazuloak eta meatzeak ezagutzeko. Herriko hainbat txoko ezagutarazteko ekimena izango da. Zapatu honetan ipini dute hitzordua, 11:00etan, eta parte-hartzaileek gaztetxeko ataritik irtenko dute. Ondoren, txangotik bueltatzen direnean, luntx bat egingo dute bertaratzen direnen artean.





**Azkeneko  
aukerak**

## IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)



# "Urte osoa lanean egon eta gero, Ibilaldia 2020ari agur egin diogu"

Joan zen domekan Ibilaldiaren agur ekitaldia egin zuten Elorriko Txintxirri Ikastolan



Ekitaldia Txintxirri Ikastolan egin zuten.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

COVID-19aren krisiaren ondorioz, Elorriko maiatzaren 31n egitekoa zen Ibilaldia urriaren 18ra atzeratu zuten hasieran. Baina abuztuaren 19an, 2020ko Ibilaldia bertan behera utzi behar izan zutela jakinarazi zuten Ikastolen elkarteak. Hala ere, Txintxirri Ikastolakoek hainbat ekitaldi antolatu zituzten urrirako, eta joan zen domekan agur ekitaldia egin zuten Elorriko. "Urte osoa lanean egon eta gero, Ibilaldia 2020ari agur egingo diogu gaur. Ikasturte osoan ibili gara lanean gure babesle, laguntzaile eta hornitzaileekin. Urtebete Ikastolako familia eta lagunekin

dena prestatzen eta kultura arloko dozenaka eragileguz ikuskizunak lotzen", adierazi zuten Elorriko ikastolako kideek Txintxirri egin zuten ekitaldian.

Horrez gainera, agur ekitaldian antolatzaileek eskerrak eman zizkieten urte osoan lanean ibili diren langile, guraso, ikasle ohi eta boluntarioei. Baita Ibilaldiaren

**Agur ekitaldian, antolatzaileek eskerrak eman zizkieten lanean ibili diren boluntarioei**

erakunde eta enpresa babesle guztiei ere. "Asko dira eta ezin banan-banan denen izenak aipatu, baina Elorriko Txintxirri Ikastolaren eta Ibilaldiaren izenean, eskerrak asko guzti-guztietan", esan zuten Ibilaldiko kideek.

Urriaren antolaturiko gainerako ekitaldiak, baita urriaren 18ko agur ekitaldia ere, protokolo berezi batez egin dituzte. Esaterako, gonbidatu kopurua murriztu egin zuten. Azken ekitaldian, Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteak lehendakaria, Josune Bañales Ibilaldia Elkarteak lehendakaria eta Idoia Buruaga Elorriko alkatea egon ziren, besteak beste.

# Elorriko Udalak zergak eta tasak izoztea erabaki du

EH Bilduk, EAJk eta Herriaren Eskubideak aho batez onartu dute aste honetan gobernu taldeak osoko bilkuran aurkeztu duen proposamena

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udaleko gobernu taldeak 2021eko tasa eta zerga guztiak izoztea proposatuko zuela iragarri zuen urri hasieran, eta atzoko osoko bilkuran gai hori eztabaidatu zuten. Elorriko Udalak osatzen duten hiru alderdiek gobernu taldearen proposamena babestu zuten eta zergak eta tasak izoztea erabaki zuten. "Egungo osasun krisiak eta ekarri dituen ondorio ekonomiko eta sozialak kontuan hartuta, argi geneukan

ez genuela zerga eta tasetan igorarik aplikatuko, nahiz eta horrek udal kutxetan diru gutxiago biltzea ekarri", esan zuten Idoia Buruaga alkateak.

Mikel Arruabarrena EAJren bozeramaileak adierazi zuen ados daudela gobernu taldearen proposamengaz. "COVID-19ak utzitako ondorioak ikusita, gure ustez ez da momentua diru biltzea egiteko; beraz, ados gaude zergak eta tasak izozteagaz", esan zuten Arruabarrenak.



# Igerilekua "inoizko zikinen" egon dela salatu du Atxondoko hainbat familiak

Datorren urterako, enpresa bat kontratu beharrean ohiko kudeaketara bueltatzeko eta langabeak kontratatze eskatu dio Atxondoko hainbat familia batzen duen taldeak udalari

## ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udalak egindako balorazioagaz "harrituta", Atxondoko hainbat familia batzen duen taldeak igerilekuen inguruko ohar bat idatzi du.

"COVID-19aren aitzakiagaz, herriko langabeak kontratatu beharrean kanpoko enpresa bat kontratatu zuten udalak igerilekura, ustez tresna gehiago izango zituelakoan segurtasun neurriak betetzeko", adierazi dute taldeko kideek. Baina hauen berbetan, igerilekuak "inoizko zikinen" egon dira uda honetan.

Hori ikusita, datorren urtera begira enpresa bat kontratatu beharrean ohiko kudeaketara bueltatu eta herriko langabeak kontratatze eskaria egin diete.



Igerilekuak zikin egon direla kritikatu du Atxondoko hainbat familiak.

# Desinfektatutako mahaiak detektatzeko semaforoak

Berrizko terrazetako eta establezimendu barruetako mahaien erabilera arduratsua sustatu gura dute

## BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak eta Berrizko Merkataritza Elkartea semaforoak banatzen dabilta herriko tabernetan, mahaietan ipintzeko. Desinfektatuta eta desinfektatu barik dauden mahaiak identifikatzeko balioko dute semaforo hauek. Eki-

men honeguz, Berrizko terrazetako eta establezimendu barruetako mahaien erabilera arduratsua eta segurua sustatu gura dute erakunde biek.

Berrizko Merkataritza Elkartea eta Berrizko Udalak bultzatu dute kanpaina.







EH Bilduk ezohiko bilkurara deitzeko eskaria egin du udaletxean, idazkaria kargutik kentzeari buruzko argibideak eskatzeko.

## Iurretan eztabaida sortu du udaleko idazkaria kargutik kentzeko eskaerak

Alkateak erabaki horren inguruan argibiderik ez ematea kritikatu du EH Bildu koalizioak

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Iñaki Totorikaguena alkateak udaleko idazkaria aldatzea eskatu du Bizkaiko Foru Aldundian. Eta EH Bilduk ezohiko bilkurara deitzeko eskaria egin du erabaki horri buruzko argibideak exijitzeko. Txosten juridiko bat ere eskatu du argitzeko ea alkateak "horrelako erabakirik hartu dezakeen udalbatza

tzarik barik". Alkateak arrazoitu duenez, "udalaren funtzionamendu onagaitik eta herria hobetzeko beharrezkoak diren proiektuak aurrera ateratzeko" egin du eskaria. "Arduraz eta erantzukizunez jokatu behar dut", gaineratu du.

EH Bilduren esanetan, "inondik inora" partekatzen ez dituzten arrazoi nagusi bi eman ditu alkateak: denbora tarte honetan "langile batzuen artean sortutako gorabehera batzuk" eta "erronka berriei aurre egiteko kualifikazio gehiago duen idazkariaren beharrezan". Koalizioaren ustez, "langileen arteko

gatazkak bideratzea alkateari dago-kio". Eta haren jarrerari "deigarria" deritzote: "Orain 6 urte idazkariak gainera idazkari albokoa ere behar zela defendatzen zuenak, ustez udalak aurre egin beharreko erronka berriei erantzuteko, beste udal batean lanean ari den idazkari bat bere jardunari %30 gehituz lanera etorrita nahikoa dela defendatzen du".

Totorikaguenak dio administrazio antolaketaren arloko barne gaia izanik hari dagokion eskumena dela eta "idazkari profilari beste norabide bat ematea" erabaki zela.

**Iñaki Totorikaguena:  
"Arduraz eta  
erantzukizunez jokatu  
behar dut"**

## Zaldibarko neguko Azokan izena emateko epea urriaren 30ean amaituko da

Zaldibarko XXII. Neguko Azoka azaroaren 29an egingo da



**ZALDIBAR • A.M.**

Urtero legez, baserriko sasoiko produktuen erakusketa, salmenta eta lehiaketa egingo dituzte Zaldibarren. Koronabirusaren eraginez, neurriak hartu behar dituzte azokan, baina egin egingo da. Txakolin, ogi, ezti, gazta, eta fruta eta barazki lehia-

ketak egingo dira, eta izena emateko epea urriaren 30ean itxiko da. Lehiaketetako irabazleek 100-125 euroko sariak eramango dituzte eta ondoen apaindutako erakustokiari 125 euroko saria emango diote. Zaldibarko XXII. Neguko Azoka azaroaren 29an egingo dute.

## 'Herri txiki, infernu handi' saioko lantaldea Abadiñon egon da grabatzen

Saio entzutetsuko lantaldea Abadiñoko pertsonaiak, istorioak eta parajeak filmatzen egon zen, martitzenean; datozen egunetan grabatuko dute saioaren beste zatia ikusleekin

**ABADIÑO • A.M.**

Durangaldeko hainbat bizilagun elkarrizketatu eta bertako txokoak erakutsi eta gero, *Herri txiki, infernu handi* programako lantaldea Abadiñon egon da grabazioak egiten aste honetan. Atxarte egoitzaren inguruetan filmatu zuten saioari hasiera ematen dion sekuentzia, eta saioko arduradunen berbetan "pozik" daude elkarrizketatuekin lorturiko emaitzagaz. Grabazioak Traña-Matienan, Zelaietan eta Sagasta aldean egin zituzten batez ere. Abadiñori buruzko informazioa zabalduko dute, ohiko umorezko ikutuagaz. Datorren egunean ere grabazioa egingo dute, probalekuan. Grabazioan parte hartzeko, aurretiaz hartu behar dira gonbidapenak.



'Herri txiki, infernu handi' saioko lantaldea, Abadiñon.

## EH Bilduk Zelaietako mugikortasuna hobetzea proposatu du

Zelaietako nagusien egoitzako kalea oinezkoentzat bilakatzea gura dute, besteak beste

**ABADIÑO • A.M.**

EH Bilduk 'Abadiño Mugi' parte-hartze prozesuaren ondorio nagusiak aurkeztu ditu. Zelaietako nagusien egoitzako kalea oinezkoentzat bilakatzea eskatu du alderdiak Hirigintza batzordean. Horrez gainera, "Batzoki aurreko aldatsa" noranzko bikoia izatea ere proposatu dute batzorde berean. "Nagusien egoitzako erabiltzaileen profila ikusita eta probalekuko sarrera nagusiaren parean egiten diren pilaketak kontuan

hartuta, gune horretako segurtasuna eta irisgarritasuna indartu behar dira", azaldu du ohar baten bitartez EH Bilduk. Abadiñoko mugikortasunaren berrantolaketa egiteko prozesu modura aurkeztu zuen EH Bilduk ekimen hau. "Egiten diren aldaketak ikuspegi integral batez egin behar dira, ez era isolatuan. Horregaitik, 'Abadiño Mugi' prozesuagaz jarraituko dugu herritarrekin batera, erabakitze aukera emanez", gaineratu dute.





# Zornotza Aretoak debalde eskainiko ditu zinema saio batzuk, hilean behin eta uztailean bitartean

Udalak azaldu duenez, Zornotzako herritarrei askotariko zinema generoak gerturatuko dizkiete egitasmoari eskerrak. Hile honetan, adibidez, hainbat film labur eskainiko dituzte



## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zinema debalde? Bai. Zornotzan posible da. Herritarrei hain ohikoak ez diren zinema generoak eta film motak gerturatzeko erabakia hartu du Zornotza Aretoak. Horregaitik, debalde eskainiko ditu zinema saioak, hilean behin, 2021eko uztailean arte. Egitasmoa martxan dago jada eta datozen hileetan izango du segida. Esate baterako, azaroaren 12an, hiru film labur eskainiko dituzte. Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga zuzendarien *Mateoren Ama* (14 minutuko iraupena du), Ana Sernaren eta Paula Iglesiasen *Sólo son peces* (17 min.) eta *El Aleteo de la Mariposa* (18 min.) film laburrak eskainiko dituzte.

Mendiari lotutako filmek ere izango dute tokia. Abenduaren 10ean Alex Txikon alpinistaren *Mendi biluzia* eskainiko dute, 20:15ean. Txikon bera bertan izango da aurkezpen lanak egiten. Mendizaleak 2019ko neguan Nanga Parbat mendira egindako igoera kontatzen du filmak.

Hileak joan hileak etorri, zornotzarrek debalde jo dezakete zinemara. Egitasmoa uztailean

## Azaroaren 12an hiru film labur eskainiko dituzte; tartean, 'Mateoren ama' ikus-entzunezkoa

arte egongo da indarrean. Zornotza Aretoak arduradunek aurreratu dutenez, hainbat zinemalditan saritutako filmak eta bestelako ikus-entzunezko lanak proiektatu dituzte hile bakoitzean. Bestalde, Zornotzako Udalak azaldu du zornotzarrei askotariko film motak eta hain ohikoak ez direnak gerturatu dizkietela egitasmo honi eskerrak.

## Sarrera non lortu

Debaldeko sarrerak Zornotza Aretoan leihatilatan bertan edo [www.zornotzaaretoa.eus](http://www.zornotzaaretoa.eus) web orrian eskuratu ahal dira.

## Politikan

Marian Bilbatua  
EH Bildu



## Durango. Herri Hezitzailea

Urriaren 14an Durangoko Udalak "Haurren Hiria" eta "Oinherri" sareetara atxikitze-ko sinadura ekitaldia antolatu zuen San Agustin aretoan.

Helduak eraikitako eta nagusiki beraien beharrei erantzuten dion hiria izatetik haur eta nerabeak komunitatearen subjektu aktibo gisa begiratze-ko eta tratatzeko proposamenak garatu dituzte aipatutako sareek eta, Durangoko Udalak, haiekin bat eginez, bide horretan aritzeko konpromisoa hartu zuen Hezkuntza Komunitatearen aurrean.

## Haur eta nerabeen autonomia eta harremana bermatuko dituzten espazioak sortzeko prozesuak jarriko ditugu martxan

EH Bildutik haur eta nerabeen partaidetza bultzatuko duten inizatibak martxan jartzeko apustu egin dugu, berauei zuzendutakoak eta, garrantzitsuenak dena, beraiekin batera garatuko direnak, hastapenetik haur eta nerabeei ahotsa, protagonismoa, erabakitze-ko ahalmena eta erantzukizuna emango dizkietenak.

Haur eta nerabeen autonomia eta harremana bermatuko dituzten espazioak sortzeko prozesuak jarriko ditugu martxan, espazio komunak, elkar-guneak, partaidetza soziala eta harremanen aniztasuna bultzatuko dutenak.

Aipatutako ekimenak aurrera eramateko, guraso eta komunitate osoaren inplikazioa ezinbestekoa da. Ikuspegi integrala duten ekintzak izango dira, banakakoen ardura izatetik ardurak partekatze-ko bidea emango dutenak, alegia.

Horrela izanik, Durango Herri Hezitzailea bihurtzeko hasitako bideak, haur eta nerabeen garapenean izango duten eragin positiboak gain, durangarren arteko zaintzan eta elkarbizitzan ere eragin positiboa izango dutelakoan gaude.

## Durungaldea asteen

### Aire zabaleko pintura lehiaketa antolatu dute zapatu honetarako, Elorrión

**Elorrión** | Izena egunean bertan eman beharko da, Iturri Kultur Etxean, 9:00etatik 10:00etara. Margotzeko tresnak norberak eraman beharko ditu. Egungo osasun egoera dela-eta, ohiko bazkaria bertan behera utzi behar izan da, eta sariak telematikoki banatuko dituzte. Epaimahaiak lehiaketa ebatzi eta berehala, aktaren kopia bat bidaliko zaie parte-hartzaile guztiei, posta elektronikoz eta/edo WhatsApp bidez.

### 30 urtetik beherako langabeek eskura dituzte prestakuntza ikastaroak

#### Amankomunazgoa |

Amankomunazgoak prestakuntza ikastaroak ipini ditu martxan 30 urtetik beherako langabeentzat. Ikastaroek leerro nagusi bi dituzte: batean, gaitasun pertsonalei, harremanei lotutakoei eta antolaketa gaitasunei buruzko coaching teknika eskainiko dute. Bestean, orga jasotzaileen erabilera, biltegiko logistika eta kudeaketa, laneko arriskuen prebentzioa eta trebezia digitalak landuko dituzte.

Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago, urriaren 28ra arte, eta aurreikus-

penen arabera, azaroan ekingo diete klaseei. Izen-ematea Behargintzako 946232522 telefono zenbakira deituta edo [prestakuntza.mdurango@bizkaia.org](mailto:prestakuntza.mdurango@bizkaia.org) helbidera idatzita egin beharko da.



## Iritzia

### ZEOZER FALTAN

Zorionak Jantzari: tradizioa eta parekidetasuna bultzatu dauen taldeari, Anbotori eta Bideografik-i hain kalitate handiko dokumentalean gure herriko historiaren parte bat jasotzeagatik.

Dana ala, testigantza edo pasarte batzuk faltan bota dodaz; hamarkadetan zehar Dantzari Dantza ezin dantzatu izan dogun emakumeona.

1997. urtean jai batzordean egonda, neska kuadrilla batek zirrikitu bat topatu gendun "Iurretako I. Nazioarteko folk jaialdia" izena eukan disfraz egunean.

Dantzari Dantza ikasteko eta duintasunez plazan egiteko konpromisoa hartu gendun. Dantzak erakusteko prest agertu ziran mutil batzuei esker lortu gendun ametsa.

Dantzaz gozatzeaz aparte inguruko erantzunak bilatzen genduzan; ia zirrikitu bat egongo ete zan hurrengo Urrijienerako. Broma edo zoro batzuen burutazino lez geratu zan asuntoa.

Zoritzarrez, momentu haretan ez ginan ausartak izan eta ez gendun jakin (neugandik hasita) ereindako haziari jarraipena emoten. Gitxienez bi arrazoi topatu dodaz: geure artean be ez egoan argi Dantzari Dantza neskak plazan mozarrotu barik egin eikienik, eta garrantzitsuenak, ez geunkala indar nahikorik momentu haretako Iurretako gizartearen aurrean borrokatzeko.

Gaur egungo gizartearen "anekdota" bat baino ez da izango hau, baina bidean honelako eta bestelako hainbat bizipen egon dagoz.

Dokumentalak jaso daben 2019ko Urrijienera parekidetasuna "naturaltasunez" heldu da gizarteak aurrera egin dabelako. Gogora ekarri gura dodaz horretarako klabe izan diran bi gertakari: Hondarribiko Alardearen borroka, eta gertuago, Kriskitin Dantza Taldearen apostua.

Idatzi hau amaitzeko, gaur egun plazarik plaza dabizan eta 2019ko Urrijienera Dantzari Dantza egiteko aukera izan daben emakume guztieri eskerrak eta zorionak. Gozatu lortu dozuen aukeraz!

Itziar Izurieta Ingunza (Iurreta)

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA · Izen-abizenak · telefona · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).





# BURUARI KLIK!





# JARRAITU BIDEARI

Seinaleei jarraituta, egin bidea beheko irudian.






# DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.



# TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu ibilgailu hauek txikitik handira.





# DIFERENTZIAK

Topatu 20 diferentziak.
















# SUDOKUA

Bete lauki zuriak beheko  
irudiak erabilita.





# LABIRINTOIA

Zein auto helduko da gasolindegira?







# ZEIN DA?

---


Zein da gurpil honen aztarna?





# ITZALAK

Zein da zein? Auto bakoitzari bere itzala dagokio.





# Anbotoren lagun izan gura duzu?



Orain duzu aukera! Zelan? BFA-ren Aurrera Kultura bonuaren abantailagaz!

Anbotoren lagun  
30€

Anbotoren lagun  
**Bizkaia aurrera  
kultura** bonuaren  
launtzagaz  
15€

1

Eskuratu Bizkaia  
AurreraKultura bonua  
BBK-ko kutxazainean edo  
[http://portal.kutxabank-ba  
kb.es/eu/comprar  
webgunean](http://portal.kutxabank-ba<br/>kb.es/eu/comprar<br/>webgunean)  
**15€-an**



2

Etorri kultura bonuagaz  
Anbotoko bulegora  
(Bixente Kapanaga 9  
behea, Iurreta) eta egin  
zaitez **Anbotoren lagun**

3

Atera etekina Anbotoren  
lagun txartelari!  
Gozatu abantaila eta  
deskontuez



+



\* Erosteke azken eguna 2021.05.24/  
Erabiltzeko azken eguna 2021.05.31. Bonu  
honek urtebeteko iraupena izango du

Bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)  
Deitu: 94 681 65 58  
[www.anboto.org](http://www.anboto.org)







## Tartalo ANTZERKIA ELORRIO :: Urriak 25

### Tartaloren kondaira fantastikoa, umorez azalduta

Joxemielek bere abenturak eta Tartaloren kondaira fantastikoa kontatuko ditu Arriola antzokian, Logela Multimedia-  
ren ikuskizun dibertigarri, koloretsu eta berritzaile honetan. Hori bai, ipuin tradizionalan

beldurra sorrarazi dezaketen elementuak baztertu eta umorearekin ordezkatu ditu. Miniaturazko mundu bat sortuko da idazmahai magikoan. Umeei zuzendutako ikuskizuna 17:00etan hasiko da.

### Urriaren 23an

**BERRIZ ikuskizuna**  
**'Burbuilak', (7-Bubbles)**  
18:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

**IURRETA musika**  
**Ruper Ordorika**, 20:00etan, lurretako plazan. Euria eginez gero, lekualdatu egingo dute kontzertua.

**ZORNOTZA musika**  
**Blanco y en Botella**, 21:30ean, Zelaietako zentroko aretoan.

### Urriaren 24an

**ELORRIO antzerkia**  
**'Festamentua' (Tio Teronen Semeak)**,  
18:00etan, Plaza ondoko parkean.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Fadoak entzuten zituen gizona' (Xake Produksioak)**,  
20:15ean, Zornotza Aretoan.

**BERRIZ solasaldia**  
**Ondarearen Jardunaldiak: 'Eskola Garaikoak Gogoratuz' (Hizlariak: Xabier Amuriza eta Fermin Barceló)**,  
12:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

**GARAI tailerra**  
**'Sendabelarrak' (Mentxu Amunategi)**, 12:00etan. Parte-hartzaileek ukenduak egingo dituzte.

### Urriaren 27an

**ZORNOTZA zinekluba** **'Super empollonas'**, 20:15ean, Zornotza Aretoan.

### Urriaren 30ean

**ELORRIO antzerkia**  
**'Fadoak entzuten zituen gizona' (Xake Produksioak)**,  
20:30ean, Arriola antzokian.

**ZORNOTZA antzerkia**  
**'Otsoa' (Proyecto Larruak)**,  
20:15ean, Zornotza Aretoan.

### Azaroaren 1era bitartean

**BERRIZ erakusketa**  
**Ondarearen Jardunaldiak: 'Gure aittite-amamen eskolak' erakusketa**, Berrizko Kultur Etxean.



## Zinema

**:: Berriz KULTUR ETXEA**

• **Ane**  
barikua 23: 22:00  
domeka 25: 19:00

**:: Durango ZUGAZA**

• **Regreso a Hop Gap**  
barikua 23: 19:30/22:00  
zapata 24: 19:30/22:00  
domeka 25: 19:30  
astelehena 26: 18:00/20:30  
martitena 27: 20:00  
eguztena 28: 19:00  
• **El club de los divorciados**  
barikua 23: 19:30/22:00  
zapata 24: 19:30/22:00  
domeka 25: 19:30  
astelehena 26: 18:00/20:30  
martitena 27: 20:00  
eguztena 28: 19:00

• **Trolls 2. Gira mundial**

barikua 23: 19:30/22:00  
zapata 24: 16:30/19:00/22:00  
domeka 25: 16:30/19:00  
astelehena 26: 18:00/20:30  
martitena 27: 20:00  
eguztena 28: 18:30

• **Como perros y gatos 3: La patrulla unida**

zapata 24: 17:00  
domeka 25: 17:00  
• **Stardog y Turbocat**  
zapata 24: 17:00  
domeka 25: 17:00

**:: Elorrio ARRIOLA**

• **La familia que tú eliges**

zapata 24: 22:00  
domeka 25: 20:00  
astelehena 26: 20:00

**:: Zornotza ARETOA**

• **Falling**

barikua 23: 20:15  
domeka 25: 20:00  
astelehena 26: 20:15

• **El arco mágico**

domeka 25: 17:00



# **Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?**

**Batu Anbotoko whatsapp taldera**

**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

**Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**





# Ikarass talde durangarrak doinu astun, ilun eta gordinez beteriko diskoa ondu du bere estraineko lanean

Ikarass boskoteak kontzertua eskainiko du gaur Gernikako Iparragirre aretoan; martxoan osasun alerta ezarri zenetik, lehenengo emanaldia izango dute



Unai Baseta, Matio Baños, Imanol M. Aginako, Imanol Bilbao eta Hodei G. Mendiguren.

## MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Ikarass taldearen *Relapse into desolation* diskoak ez du erditze erraza izan. 2018ko urrian hasi zuen boskoteak lehenengo diskoaren grabazioa, baina biniloen ale fisikoak ez dira 2020ko udazkenera arte heldu. Hala ere, taldekideak pozik daude denbora honetan egin duten bideagaz. "Oso zorrotzak izan gara prozesu guztiagaz, musikagaz zein diseinuagaz, eta lan borobila geratu zaigula uste dugu", azaldu du Matio Baños gitarrista durangarrak. Bost abestitan ia 50 minutuko bidaia ilun eta gordina proposatzen du

Ikarassek *Relapse into desolation*en. "Abestiek ez dute ohiko egitura, eta horrek ahalegin bat eskatu diezaioke entzuleari. Diskoaz gozatzeko modurik egokiena hasi eta amaitu entzutea dela uste dugu; horretarako prestatu dugu guk", azaldu du Unai Baseta baxu-jotzaileak.

### Hamabost herrialdeetatik baino gehiagotik jaso dituzte eskaerak 'Relapse into desolation' erosteko

Institutu sasoiari hasi ziren Baños eta Hodei G. Mendiguren galdakoztarra lehenengo ideiak sortzen eta elkartrukatzeko, eta gerora batu ziren taldera Imanol M. Aginako (ahotsa) eta Baseta durangarrak. Grabazioan Jon Estankona bateria-jotzaileak ere parte hartu zuen, baina Imanol Bilbao zornotzarrak astintzen ditu partxeak gaur egun. "Ikarass musikazalek ere jarraitzen nuen, eta bertan jotzea itzela da", azaldu du Bilbaoak.

### Xanperen aukeraketa

Taldea osatuta, 2017ko abenduan Urretxuko (Gipuzkoa) Hezurre Fest jaialdian eskainitako kontzertua mugarriztat du taldeak. "Proposamen hura momentu hartan behar genuen bultzada izan zen". Harrezkero, hainbat bider igo dute taula gainera. Besteak beste, Etorrioko gaztetxean Cobra taldeagaz jo zuten. Han ezagutu zuten Koba estudioetako Xanpe [Jose Manuel Sampedro. Cobrako teknikaria izateaz gainera, Pi L T talde entzutsuko bateria-jotzailea ere izan zen], eta bere estudioan grabatzea adostu zuten. "Gustuko ditu gurearen moduko doinu astunak,

eta aurretik horrelako grabazioak egin bakoa zenez, oso motibatuta zegoen", azaldu dute taldekideek.

### Ikarassek ia 50 minutuko bidaia ilun eta gordina proposatzen du bost abestitan lehenengo diskoan

Grabazioa eta editatze faseak probetxuzkoak izan zirela nabarmendu dute eta prozesuan ikasitakoaren garrantzia azpimarratu gura izan dute. "Konposaketak ez ezik, soinuari ere arreta berezia eskaini diogu. Afinazio baxuak eta soinu grabatzeak erabiltzen ditugu eta ez da erraza ezaugarri horiek dituen soinu indartsu eta garbi bat lortzea", gaineratu dute. Neurosis, Isis, Cult of Luna eta Amenra aipatu dituzte inspirazio talde modura, eta hurbilago etorritako Lisabö eta Dut taldeak azpimarratu dituzte. Anestesia talde zarautzarrari ere keinu egiten diote abesti batean, "omenaldi txiki modura".

Lorturiko emaitzagaz ez ezik, diskoa izaten ari den harreragaz ere

pozik daude musikariak. Izan ere, hamabost herrialdeetatik jaso dituzte diskoak bidaltzeko eskariak. "Jaso ditugun eskarien erdiak baino gehiago atzerritik heldu zaizkigu, eta horrek ilusio berezia sortzen du gudan. Kontuan hartu behar da, gainera, prozesua hasi eta amaitu, guk geuk egin dugula dena".

### Berriro oholtzara

Ikarassek martxoan eskaini zuen bere azkeneko zuzeneko, osasun larrialdi egoera ezarri bezperetan. Ordutik hona oholtzara igo barik egon eta gero, boskotea gogotsu dago. "Musika talderik gehien moduan, oso gaxt ikusten genuen 2021a orduko oholtzara gainera bueltatzea, eta, beraz, ezinezkoa da gogotsu ez egotea", esan du Unai Basetak. Gernikako Iparragirre aretoan jotzea ere berezia da eurentzat. "Iparragirre erreferente bat da guretzat, eta horrek politagoa egiten du sasoi arraro honetan kontzertu bat eskaintzeko aukera edukitzea", gaineratu du Basetak. Aretoak eta gaztetxeak bereziki gustuko ditu taldeak. "Uste dugu bertan errazago transmitituko dugula geure mezua", dio Baños gitarristak.




## Gai librean

### Biziminak (III)

Errealitatea etengabe zenbakitan ematen zaigun garaiotan, iruditzen zaizu inork ez digula esan nahi benetan zer datorkigun, eta larria ematen dizu eguneroko zenbakien irakurketa arrunt horrek. Nahiago zenuke ezer gehiago ez jakin eta aprobetxatu gordinkeria honetatik apur bat aldendu eta metro batzuk atzerago kokatzeko. Hala ere, aldian behin baina gero eta sarriagotan ohartzen zara mundu honetako zure izatearen ezerezaz. Horren intermitentea izan zara beti...

Urriko euriak ezkutatu zaitu eta atzera begira zaudela erremediorik gabe egiten dizu ihes orainak. Min ematen dizu zurea izan zitekeen denborak; oharkabean neurri estu eta murriztaileen gurpilean sartu izanak; eta madarikatzen dituzu ezarritako muga eta arau guztiak zure ohiko bizimodu soilarekin jarraitzeko egindako saiakera bakoitza behin eta berriz sabotatzeagatik. Aspaldian maiz esan dizute sasoi berriei ekiteko ate batzuk ixten joan behar duzula, badakizu, normalean besteek hobeto jakiten dute zer komeni zaion norberari.



Garazi Mugarza Markina  
Erizaina

Baina pandemiaren erokeria gertutik ezagutu baduzu ere, hara zenbat naufragio ahaztu ditugun hilabete gutxitan, horiek ere zenbakitan eta adinaren arabera ordenatuta (zigor erantsi bat gehiago zenbaitentzat). Agian egin zenezake zerbait, gu-

*Badakizu, normalean besteek hobeto jakiten dutezer komeni zaion norberari*

*Aldian behin baina gero eta sarriagotan ohartzen zara mundu honetako zure izatearen ezerezaz*

*Akordatu zenbat abestu duzun "bakarra da bizitza ta soilik ditu bi bide, preso bizi gintezke edo erdi libre"*

txienez etsipen eta itxaropenaren arteko borrokaren agoniaz libratu eta ezinezko dirudiena beste pixka bat eginda lortzeko, bake apur bat urriko euripean. Akordatu zenbat abestu duzun "bakarra da bizitza ta soilik ditu bi bide, preso bizi gintezke edo erdi libre".



Elkoroiribe eta Atutxa.

### Amankomunazgoak eta Gerediagak akordioa sinatu dute

**DURANGOKO AZOKA** • A.M.

Durangaldeko sortzaileek Durangoko Azokaren online dendan saltzen dutenaren %100 jasoko dute Amankomunazgoaren eta Gerediagaren arteko elkarlanari eskerrak; eskualdetik kanpoko sortzaileei saldutakoaren %12 kobratuko zaie, kudeaketa eta logistika gastuengaitik. Azken urteetan 'Durangaldeko argitalpenak' erakusmahaia egon da Landako Azokan. Koronabirusak aldaketa asko eragin ditu, salerosketa guztiak denda birtualean egin behar izatea, besteak beste. Abenduaren 4tik 8ra bitartean egingo da aurten Durangoko Azoka.

# HONDAR AHOAK

## TELESAIL BERRIA, AZAROAN



GURE FIKZIOA LEHENA



# Parentesi luzearen ondoren, denboraldi hasiera itxaropentsua izan dute Amorebieta futbol klubak eta Durangoko Kulturalak

Talde biak oso lehiakor aritu ziren. Horri eskerrak, Amorebietak garaipena lortu zuen luzapenean, eta Kulturalak berdinketaren gola bigarren zatian



Kulturalak Pasaiaren futbol zelaian hasi zuen denboraldia.



Larrean minutu bateko isilunea gorde zuten Maria Eugenia Etxebarriaren oroimenez.



Durangoko Kulturalagaz debutatu zuten hiru gazteak.

## FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen asteburuan, Bigarren B Mailako eta Hirugarren Mailako liga denboraldiak hasi zituzten. Ondorioz, sei hilabeteko parentesiaren ondoren, eskualdeko futbol klub nagusi biak, Amorebieta eta Durangoko Kulturala, berriro zelaletara bueltatu ziren. Apurka joan konfiantza hartzeko ez ezik,

### Aimar Sagastibeltza zentralak luzapenean sartu zuen garaipenaren gola Amorebietarentzat

zalantzak uxatzeko ere balio izan zuten estreinako partiduek. Talde biek ezaugarri bat erakutsi zuten:

lehiakortasuna. Eta azken unera arte ekiteari eskerrak lortu zuen garaipena Amorebietak eta berdinketa Kulturalak.

Amorebietak 2-1 menderatu zuen Laredo etxean, eta 90. minutua gaindituta zegoela lortu zuen garaipenaren gola, falta bat errematatzeraz igotako Aimar Sagastibeltza zentralari eskerrak. Leitzako (Nafarroa) jokalariek bigarren denboraldia du Amorebietan.

Partidua hasi aurretik, Maria Eugenia Etxebarria oroitu zuten. 2014 eta 2018 artean klubeko presidente izandakoa irailean hil zen.

### Kulturalaren erreakzioa

Durangoko Kulturalak ere euren buruarengan izandako fedeari eskerrak lortu zuen garaipena.

Pasaiari egindako bisitan atzetik joanda eta aurkaria baino gutxiago izanda joan ziren aldageletara, baina bigarren zatian erreakzionatu egin zuten, hainbat aukera sortu zituzten eta eurretari bat sareetara bideratu zuen Ximon jokalaririk.

Azpimarratzekoa da hiru jokalaririk gazteak lehenengo taldeagaz debutatu zutela: Joseba Beitiak (19 urte), Aitzol Gonzalezek (18 urte) eta Josu Gallastegik (18 urtez). Gallastegik klubeko maila guztietan jokatu du.

Zapatuan, etxean jokatu du Kulturalak Anaitasunaren kontra. Publiko bako partidua izango da, gaur eguneko egoeraren ondorioz. Hala ere, etxean jokatzen duten hurrengo partiduan zaleak harmailetan egotea itxaroten dute, edukiera murriztuarekin bada ere.

### Joseba Beitiak, Aitzol Gonzalezek eta Josu Gallastegik debuta egin zuten Kulturalagaz

### Gainerako ligak

Emakumeetan, eskualdeko ordezkari nagusiak, Euskal Ligan dabilen Elorrio futbol klubak, azaroaren 1ean hasiko du denboraldia. Asteburu honetan Bizkaiko hainbat liga hasiko dituzte. Ohorezko Mailan gustua ematen du taldeen zerrendari begiratzeak, eskualdeko hiru talde daudelako aspaldiko partez: Iurretako, Elorrio, eta maila honetan estreinako urtea izango duen Abadiño. Iurretakok San Pedroren

(Sestao) zelaia bisitatuko du. Jon Gurutz Vazquezen mutilek, ohiko moduan, Hirugarren Mailara igotzeko borrokan ibili gura dute. Maila berean dabil Elorrio futbol kluba ere. Honek ere etetik kanpora hasiko du denboraldia, Arrigorriagan, Padura taldearen kontra. Abadiñok, ostera, etxean hartuko du Erandio, Astola zelaian.

Koska bat beherago, Lehentasuneko Mailan, Zaldibarko Zalduek, eskualdeko ordezkari bakarrak, Basauriren kontra jokatuko du.

Beheragoko mailetan, B taldeak alde batera utzita, Ezkurdi Lehenengo Erregionalean arituko da, Berriz Bigarrenean eta Otxandioko Vulcano Hirugarrenean. Emakumeetan Elorrio B-k eta Ezkurdi Lehen Erregionalean jokatuko dute.

# DIBA

K O O P E R A T I B A

## Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

## Mallabiena

### M.Z.O. ITURGINTZA GASA BEROGAILUA ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrialdea, 6  
48215 IURRETA  
Tel.: 946 818 862 / 946 816 051  
mallabiena@mallabiena.com  
www.mallabiena.com



# Kepa Arroitauregiren oroimenezko txapelketa azken txanpara heldu da eta gaurko jardunaldian erabakiko dira finalistak

Gizonen paleta goman, Mikel Iraurgi eta Iñigo Arrieta Durangaldeko pilotariak finalera sailkatzen ahaleginduko dira Tornosolo trinketean



Maidier Mendizabal-Leire Galdos (urdinez) eta Elena Agullo-Maite Ruiz de Larramendi (gorriz) bikoteen arteko finalerdiko irudia. [WWW.JULENURIBE.COM](http://WWW.JULENURIBE.COM)

## TRINKETA • JOSEBA DERTEANO

Kepa Arroitauregiren oroimenezko txapelketa azken txanpan sartuta dago. Finalista erdiak erabakita daude eta euren aurkariak norzuk izango diren jakitea falta da. 18:30ean jokatuko dira falta diren finalerdiak, Tornosolo trinketean.

Emakumeen paleta goman, Ane Ibañezek eta Nagore Martinek Lorena Sobrinoren eta Marina Saezen aurka jokatuko dute. Lau pilotariak arabarrak dira. Ibañez eta Martin dira faboritoak finalera sailkatzeko, baina adituek partidu orekatua itxaroten dute.

Bikote irabazleak Maidier Mendizabal eta Leire Galdos hartuko ditu finalean. Gipuzkoarrek Elena Agullo eta Maite Ruiz de Larramendi kanporatu zituzten finalerdietan (30-23), oso itxura ona eskainita. Hasieratik amaierara oso partidu serioa jokatuko zuten.

Gizonen paleta gomako bikote bat Durangaldekoa da. Mikel Iraurgi abadiñarrak eta Tornosolo klubeko Iñigo Arrietak Unai Sagarzazu irundarraren eta Ignacio Clua argentinarraren —Bilbon bizi da— kontra jokatuko dute. Partidu honetan ere ez dago faborito argirik.

Gizonetan etxeko lanak dagoeneko eginda dituztenak Aritz Larrarte eta Gorka Pablos dira. Finalerdietako norgehiagokan goitik behera nagusitu zitzaizkien Eslava eta Purroy-ri: 30-13. Pablosek hainbat tanto amaitu zituen pilotari emandako efektu bereziak baliatuz, eta Larrarte beti bezain borrokalari ibili zen atzean partidu osoan zehar.

## Larralde-Aspuru finalean

Esku pilotan Peio Larralde eta Asier Aspuru abadiñarra bikotekako finalerako sailkatuta daude. Joan zen astean lortu zuten txartela, Ospitalek eta Ugaldek osatutako bikoteari errepasoa emanda: 40-17. Partidu erdira arte lehia estua izan zen (17-14), baina ordutik aurrera, irabazleak ia zuzenean joan ziren 40ra. Larralde izan zen lauretan onena eta sasoi betean dagoela erakutsi zuen. Aspuru seguru jokatu zuen eta sendotasuna eman zion bikoteari.

Hauen aurkariak atzo iluntzean erabaki ziren Arabiourrutia-Ducasou eta Ziarrusta Guichantut bikoteen arteko finalerdian.

Final guztiak hurrengo barikuan jokatuko dira, urriaren 30ean. Azkenaldian Abadiñon izan diren COVID-19 kasuak direla-eta, baliteke finalak ikuslerik barik jokatzea.

## Jokaldia

### Gazteak eta kirola egiteko aukera

Kirola ez da bizi dugun errealitate horretatik kanpo gelditu, eta orokorrean jarduera gehienak bertan behera gelditu ziren martxoaren erdialdean.

Ardura bereziaz hartzen dut, batez ere, eskola kirola zein gazte mailako kirolarien egoera. Adituen ustez, kirola egitea ona eta osasuntsua da. Nire aburuz, osasuntsua ez ezik ezinbestekoa ere bada gizakiaren garapenerako. Kirolaren bitartez gorputza zaindu eta garatzeaz gain, beste hainbat arlo sustatu eta indartzen dira. Talde kontzientzia litzateke horietako bat, talde baten partaide zarela sentitzea. Barneratzea bakarrik arin joan zaitezkeela, baina urrutira heldu nahi baduzu lagunduta joatea egokiagoa dela.

Aniztasuna da beste balio bat: denon beharra dagoela, eta taldekide



Gotzon Gomez Barrenetxea  
Errugbia

**Adituen ustez, kirola egitea osasuntsua da; nire aburuz, ezinbestekoa ere bada gizakiaren garapenerako**

**Ahal den lasterren bideratu eta har ditzagun neurriak, gure gizartearen zati handi batek behar duelako**

guztiak osotasunari zer eman badute. Balioak, eta honekin lotuta irabazi eta galtzearen dikotomiaren aurrean izan beharreko jarrera, aurkariarekin beti izan beharreko errespetua. Behin irabazteko askotan galdu behar dela, irabazten zein galtzen jakitearen garrantzia.

Hau dena esanda, argi daukat ezinbestekoa dela formulak bilatzea gure ume, nerabe eta gazteek kirola egin dezaten.

Nik bi nerabe ditut etxean, eta talde kirolean martxan noiz hasiko diren zain daude, beharra dute. Osasun neurriak zaindu eta errespetatu behar direla argi daukat eta ados nago horrekin, baina eskaera bat daukat agintzen dutenentzat. Orain arte, uste dut ume, nerabe eta gazteak izan direla gehien ahaztu ditugunak, neurri ugari hartu dira egoera honi irtenbidea emateko (osasunean, ekonomian, gizarte...), baina gehienetan gazteak ahaztu ditugu. Beraz, mesedez, ahal den lasterren bideratu eta har ditzagun neurriak egoera honi konponbidea emateko, gure gizartearen zati handi batek behar duelako.



# DURANGALDE



## Ametzorbe Eskalada Eskola

Durangaldean gutxi ezagutzen dute Oizerako bidean dagoen eskaladarako gune hau. Ekipatuta dago eta aukerako bideak ditu ume zein hasiberriekin joateko. *Forestalean* autoa utzi eta oinez joan daiteke bertara.



# KO TXOKOAK!

## Alluitz mendia

Urkiolako Parke Naturalean dago eta Abadiñoko mendirik garaiena da (1.034m). Tontorrik tontor joanda Anbotoraino heldu daiteke bertatik, baina zailtasun handiko ibilbidea da, tartean Infernu Zubi pasagune arriskutsua igaro behar da eta.







# Hemen eta online



Sartu [anboto.org](http://anboto.org)-en  
menuan **iragarkiak**  
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta  
[iragarkilaburrak.eus](http://iragarkilaburrak.eus) orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu  
eta **erregistratu**  
egin behar zara.



## IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira [anboto.org](http://anboto.org)-en



HIGIEZINAK  
TEKNOLOGIA  
LANA / NEGOZIOAK  
DENERIK  
IBILGAILUAK  
HARREMANAK  
AISIA / KIROLA  
FAMILIA / ETXEA

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.  
Erregistratu [www.anboto.iragarkilaburrak.com](http://www.anboto.iragarkilaburrak.com) webgunean eta ipini zure iragarkia ( Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.



## Botikak

**BARIKUA, 23** · 09:00-09:00

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 24** · 09:00-09:00

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-13:30**

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**BALENCIAGA** Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**JAIO-ABENDIBAR** Errekakale 6. - **ELORRIO**

**EGUREN, ISABEL** Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**DOMEKA, 25** · 09:00-09:00

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA 26** · 09:00-09:00

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 27** · 09:00-09:00

**ETXEBARRIA** Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 28** 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 29** · 09:00-09:00

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENAKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorixonak, **Aunitz**. Urriaren 14an 10 urte egin dozuz. Haunditzen zoaz baina guretzako beti izengo zara gure txikitxue. Jarraitu alai eta zintzoa izaten. Muxu haundi bana.



**Amamak** 90 urte egin ditu. Laster ospatuko dugu behar den moduan. Mosu pilo bat etxekoan partez.



Zorionak gure **Uraitz** txikitinoarentzat, 2 urtetxo egin dituelako. Muxutxu pila bat amama, aitite, izeko, osaba eta batez be zure lehengusina Udane, Izar eta Ibairen partez. Maite zaitugu!



### GOZATU GOZATEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozaturango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, bikote! 8 urte pasatu dira gure bizitzeko modua aldatu zenutenetik eta ez guke ezer aldatuko. Etxekoan partez, musu potolo bana!



Durangoko **Angel** eta **Liher Aniak** urteak egin dituzte urriaren 15ean eta 23an. Zorionak familia guztiaren partez eta musu potolo bat bientzat.



Urriaren 28an 6 urte egingo dauz **Haizeak**. Zorionak zure lehengusu Oihan ta Izein partez. Ondo pasau eguna! Muxu bat!

## Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 20° / 13 🌞

ASTELEHENA 🌧️ 13° / 8° 🌧️

EGUAZTENA 🌧️ 17° / 9° 🌧️

DOMEKA 🌧️ 14° / 8° 🌧️

MARTITZENA 🌧️ 17° / 11° 🌧️

EGUENA 🌧️ 16° / 9° 🌧️

CERAMICAS  
**MACOBER**

ZERAMIKA ETA GRESA  
DEKORAZIOA ETA APAINKETA  
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etzori eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

**hitz**  
liburudenda

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



**AITAREN ETXEA**  
Karnele Jaio (Elkar)



**POESIA, ZAURIEN UKENDU**  
Ainhoa Urien (Pamiela)



**MIÑAN**  
Amets Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)



**DENDAOSTEKOAK**  
Uxue Alberdi (Susa)



**ETXEKO URAK**  
Leire Bilbao (Susa)



## “Erronka pertsonal modura hartu dut fitnesssean lehiatzen hastea”

Fitnessaren mundua ezezaguna dela uste du Marquezek: argi eduki behar da zer landu gura den, zelan eta zein helburugaz, eta askok hori jakin barik dabilta gimnasioan



**Patricia Marquez Ormaetxea**  
Bikini fitness lehiakidea  
Iurreta | 1974

**IURRETA** • AITZIBER BASAURI

**Patriciak urte bi daramatza fitness munduan sartuta. Eta urrian Bikini Master mailan lehiatu da, lehenengoz. Kordobako Espainia mailako Hercules Kopan bosgarren postua lortu zuen; bestalde, Alacanten jokatzen Europako NPC Txapelketan zortzigarren geratu zen.**

**Zelakoa izan da esperientzia?**

Oso ona! Pozarren nago egindako lanagaz. Mundu osotik etorritako jendeagaz lehiatu naiz Europako Txapelketan. Mundiala izan da! Nork esango zuen nire adinagaz Bikini fitnesssean lehiatzen hasiko

nintzela, Europako txapelketan arituko nintzela. Fitnessak konstantzia eta sakrifizioa eskatzen ditu, baina edonork egin dezake. Urriaren 31n Alacanten dudantxapelketa dut orain erronka, eta ilusio handiagaz nago. Gainera, Europako txapelketan onenekin ikasteko aukera izan dut (Rocio Lopez Corchero, Cristobalina, Veronica Gallego...). Gogor lan egin beharko dut goian egoteko.

**Entrenamendu saio gogorak daude emaitza horien atzean.**

Bai. Egunero ordu bi edo bi eta erdi ematen ditut entrenatzen. Horrez gainera, ariketa kardiobaskularren

40 minutuko saioak egiten ditut, eta *posing*-a (araudiko poseak giharrek erakusteko) landu. Batez ere, asteburuan entrenatzen naiz. Hala ere, muskuluek eskertzen dute atsedean egun bat hartzea. Bikini fitnesssean, oso linea femeninoa lantzen da; leuna, sotila. Sorbaldari eta aldakei begiratuta, gorputzak 'X' forma duen kontuan hartzen du epaimahaiak, gerri estuagaz. Hori erakutsi behar dugu *posing*-ean. Ipurdia ere asko landu behar da.

**Zein da zuretzat gorputzeko atalrik zailena lantzeko?**

Izterrak, (koadrizepsak, femoral...). Oso mingarria da. Lehenengo,

muskulua hazteko lan egiten dugu, eta gero giharra findu eta finkatzeko. Elikadura eta entrenamendua ezinbestekoak dira horretarako.

**Zelan hasi zinen fitnesssean?**

Beti egin zait deigarria, eta sasoi-ka ibili naiz gimnasioan. Baina hamabost urtean spinning egin dut. Ez nuen giharretan eraginik ikusten eta fitnessagaz tartekatzen hasi nintzen orain urte bi. Orduan ezagutu nuen entrenatzailea eta bikotekidea dudantxan Andoni. Ondo ezagutzen du mundu hau. Dena batuzen. Denbora gutxira, spinninga utzi eta elikadura aldatzen hasi nintzen. Gorputzak erantzuten zuela ikusi nuen, emaitzak ikusi nituen, eta gaur arte jarraitu dut.

**Zerk animatu zintuen lehiatzera?**

Inguruko askok lehiatzeko prest nengoela esaten zidaten eta erronka pertsonal modura hartu dut. Gero konfinamendua etorri zen, eta apur bat atzera egin nuen, entrenatzen jarraitu arren. Hala ere, serio ipini eta aukera sortu zen.

**Elikadura oso garrantzitsua da fitnesssean. Baskula etsai duzu?**

Ez. Fitnesssean lehiatzeko, %70 elikadura da, eta oso dieta zorrotza bete behar dut, bai, baina horrek ez du esan gura ez dudarik jaten. Argal egotea osasuntsu egoteagaz nahastu dute askok, dieta bat jarraitzea argal egoteagaz. Ez du zerikusirik. Jan behar dudak proteina edo hidrato kopurua jakiteko pisatzen naiz. Linea zehatz bat lortzea da nire helburua. Begira ematen duena da garrantzitsua, ez pisua.

**Izaten duzu tentaldirik?**

Bai. Oso gozozalea naiz. Dena dela, lehiatzen ez garenean, egun batean, jatordu batean, gura duguna jan dezakegu. Txokolatzeko palmerak jateko aprobetxatzen dut nik.

**Beldur zara muskulua lar hartzeko?**

Ez. Ez da batere erraza muskulua garatzea. Elefanteak beste jan beharko nuke, eta entrenamendu ikaragarriak egin. Jendea oso oker dago.

**Zer eman dizu fitnesssak?**

Ongizate orokorra, poztasuna. Oso osasuntsu sentitzen naiz. Bizitzeko era bat da. Hiru orduko jaten dut, gorputza etenik barik aktibo mantentzeko. Gorputzak ezinbestekoa du jatea. Askok ikasi dut elikaduraz.

**Lau-hortza**

Markel Onaindia Txabarri  
Kazetaria



**Déjà vu**

Matienako elkarretartzera bidean gindoazen lagunak, autotan, iraganera bueltatzeko sentazioa geneukala komentatzen ari ginenean. Imanol eta beste hiru herritar atxilotu zituzten egunean zetorren etxera Alaitz. Protesta batera gindoazen, eta ostean harrera batera. Amorruta eta poza. Nekea eta ilusioa. Protesta eta ospakizuna. Lehenago bizitako sentimendu nahasketak. Déjà vu.

Gerora, kalean topatu dut Alaitz eta egoera naturala iruditatu zait, betikoa. Zeozelan esatearren, beste nonbaiten ibilitako puzzle pieza bere kaxa originalera ekartzea lez. Bere lurretik aterata egon eta gero, sorlekura bueltan datorren lorearen antzera. Udaberrian ere, gauza bera sentitu nuen bere betiko laguna herrira itzuli zenean.

Denbora-pasa ez balitz bezala. Baina, bai, denbora-pasa da eta asko gainera. Eta, akordatu naiz senideez, urte luze haue-tan guztietan hara eta hona kartzelarik kartzela ibili direnez. Fleury, Rennes, Alacant, Picassent... zenbat. Isilean, astebururo, euren etxeak jago-teko milaka kilometro egiten. Merezki bako mendekuaren mapetan. Askok dira, gehiegi, oraindik ere zaintza lan horretan daudenak, gatazka konpondu ez denaren lekuko zuzenak. Zutabe honetako letra bakoitzeko, musu bat eurentzat.

Eta astekari honen edizioa itxear dela, notizi beltzenak heldu dira. Asier Aginako Etxenagusia preso ohia hil da, kartzelan garatutako gaixotasun baten ondorioz. Espetxe politika kriminal hau amaitu beharra dago. Betirako gudan, Asier. Musu handi-handi bat etxeokentzat.

Iragera orainean da.



**ALBERDI**  
HARATEGIA

